I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1707

205/2012 FORU AGINDUA, martxoaren 15koa, Ogasun, Aurrekontu eta Finantza Sailarena; honen bidez Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien eredu batzuk onartu dira eta haiek kudeatzeko arau batzuk eguneratu dira.

Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa onartu duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeko 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak zerga itunduak dira eta lurralde erkideko funtsezko eta formazko arau berak aplikatzen zaizkie; hala ere, foru aldundiek zerga berezien aitorpenerako ereduak onartzeko eta zerga zorrak sartzeko epealdiak ezartzeko eskumena daukate. Halaber, zerga bereziak ordainarazteko eskumena ere foru aldundiek daukate sortzapena EAEn gertatzen denean.

Horren ildotik, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea Arabako zerga arautegira moldatu zen. Hala ere, denbora luzea joan da 38/1992 Legea onartu zenetik eta zerga bereziak asko aldatu dira indarrean jarri zenetik; ondorioz hainbat aldaketa egin behar izan dira garapen arauetan eta aplikazioan, eta arautegia oso barreiatuta dago.

Agindu honen bidez Zerga Berezien aitorpenerako eredu batzuk onartuko dira indarreko araudira moldatzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak honen gainean egindako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien autolikidazioa eta ordainketa.

1. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien zerga zorra zehazteko eta ordaintzeko autolikidazio eredu hauek onartu dira:

a) 560 eredua - Elektrizitatearen gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen I. eranskina).

b) 561 eredua - Garagardoaren gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen II. eranskina).

c) 562 eredua - Tarteko Produktuen gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen III. eranskina).

d) 563 eredua - Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen IV. eranskina).

e) 564 eredua - Hidrokarburoen gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen V. eranskina).

f) 566 eredua - Tabakogaien gaineko Zerga. Autolikidazioa (foru agindu honen VI. eranskina).

2. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien subjektu pasiboek 560, 561, 562, 563, 564 eta 566 ereduak aurkeztu behar dituzte. Salbuespena: inportazioa.

Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien autolikidazio ereduak haien kargapeko produktuak jasotzen diren establezimendu edo toki bakoitzeko aurkeztu behar dira, bai eta autolikidazioaren emaitzako kuota likidoak ordaindu ere. Eredu bakoitzean likidazioaldian egindako eragiketak agertu behar dira.

Arabako Foru Aldundiaren lurralde eremuan instalaziorik eduki ez arren bertan energia elektrikoa kostu bidez hornitzen duten Elektrizitatearen gaineko Zergaren subjektu pasiboek zerga horren autolikidazioa aurkeztu behar dute.

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1707

ORDEN FORAL 205/2012, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 15 de marzo, por la que se aprueban determinados modelos y se actualizan diversas normas de gestión con relación a los Impuestos Especiales de Fabricación.

De conformidad con el artículo 33 de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, los Impuestos Especiales de Fabricación tienen carácter de tributos concertados que se regularán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en el territorio de régimen común, sin perjuicio de la competencia de las Diputaciones Forales para aprobar los modelos de declaración de los impuestos especiales y señalar los plazos de ingreso, atribuyendo la competencia para la exacción de los mismos a las Diputaciones Forales cuando el devengo se produzca en el País Vasco.

En este sentido, en virtud del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero se adaptó a la normativa fiscal alavesa la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales. No obstante, la profunda transformación que han sufrido los impuestos especiales desde la entrada en vigor de la citada Ley y el tiempo transcurrido desde su aprobación, ha motivado sucesivas modificaciones en sus normas de desarrollo y aplicación dando lugar a una situación de gran dispersión normativa.

La presente Orden tiene por objeto aprobar determinados modelos de Impuestos Especiales para adecuarlos a la normativa vigente.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero. Autoliquidación y pago de los Impuestos Especiales de Fabricación.

1. Se aprueban los siguientes modelos de autoliquidación para la determinación e ingreso de la deuda tributaria de los impuestos especiales de fabricación:

a) Modelo 560 -Impuesto sobre la Electricidad. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo I a la presente Orden Foral.

b) Modelo 561 -Impuesto sobre la Cerveza. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo II a la presente Orden Foral.

c) Modelo 562 -Impuesto sobre Productos Intermedios. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo III a la presente Orden Foral.

d) Modelo 563 -Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo IV a la presente Orden Foral.

e) Modelo 564 -Impuesto sobre Hidrocarburos. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo V a la presente Orden Foral.

f) Modelo 566 -Impuesto sobre las Labores del Tabaco. Autoliquidación-, que se adjunta como Anexo VI a la presente Orden Foral.

2. Los modelos 560, 561, 562, 563, 564 y 566, deben ser presentados por los sujetos pasivos de los correspondientes Impuestos Especiales de Fabricación, excepto en el caso de importación.

La presentación de los modelos de autoliquidación y, en su caso, el pago simultáneo de las cuotas líquidas, se realizará, con carácter general, por cada uno de los establecimientos o lugares de recepción de los productos y objeto de los Impuestos Especiales de fabricación, por las operaciones realizadas en el período de liquidación.

También presentarán autoliquidación los sujetos pasivos del Impuesto sobre Electricidad que, no teniendo instalaciones en el ámbito territorial de la Diputación Foral de Álava, realicen suministros de energía eléctrica a título oneroso en dicho ámbito.

Likidazioaldian zerga berezien kargapeko produktuen izakinik egon ez bada edo halako produktuen mugimendurik egin ez bada, ez da aurkeztu beharko autolikidaziorik.

Halaber, likidazioaldi jakin batean Elektrizitatearen gaineko Zergaren kuota edo Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuota (gas naturalari dagokiona) zero bada, ez da aurkeztu behar autolikidaziorik.

Alabaina, likidazioaldian zehar karga tasak aldatzen badira eta ondorioz tasa bat baino gehiago aplikatu behar bada, subjektu pasiboek autolikidazio bat aurkeztu beharko dute tasa bakoitza aplikatu den aldi bakoitzeko, bai eta haren emaitzako kuota ordaindu ere.

Europar Batasuneko beste lurralde bateko produktuak jasotze-agatik edo emateagatik soilik Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu autolikidaziorik halako produkturik jaso edo ematen ez duten likidazioaldietan.

3. Jarraian zerga berezien likidazioaldiak eta autolikidazioak aurkezteko (eta behar denean kuotak ordaintzeko) epealdiak zehaztuko dira:

a) Hidrokarburoen gaineko Zerga eta Tabakogaien gaineko Zerga:

- Likidazioaldia: hilabete naturala.

- Aurkezteko epealdia: sortzapena gertatzen den hilaren ondoko lehen hogeita bost egun naturalak.

b) Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zergak:

- Likidazioaldia: hiruhileko naturala; salbuespena: eragiketen bolumena dela-eta edo araudian ezarritako inguruabarren batengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaldia hilabetekoa bada, zerga hauen likidazioaldia ere hilabetekoa izango da.

- Aurkezteko epealdia: likidazioaldia hiruhilekoa bada, sortzapena gertatzen den hiruhilekoa amaitu ondoko bigarren hileko lehen hogeita bost egun naturalak. Likidazioaldia hilabetekoa bada, sortzapena gertatzen den hila amaitu ondoko hirugarren hileko lehen hogeita bost egun naturalak.

c) Elektrizitatearen gaineko Zerga:

- Likidazioaldia: oro har, likidazioaldia hiruhileko naturala da; salbuespena: eragiketen bolumena dela-eta edo araudian ezarritako inguruabarren batengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaldia hilabetekoa bada, zerga honen likidazioaldia ere hilabetekoa izango da.

- Aurkezteko epealdia: sortzapena gertatzen den hilaren edo hiruhilekoaren (kasuan kasukoa likidazioaldiaren arabera) ondoko lehen hogeita bost egun naturalak.

4. Autolikidazioak Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile jarduteko baimendutako kreditu edo aurrezki bankuetan aurkeztu behar dira, bai eta haien emaitzako kuotak ordaindu ere. Kuotarik sartu beharrik eragiten ez duten autolikidazioak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean aurkeztu behar dira.

Bigarrena. Eragiketen aitorpenen aurkezpena.

1. Eragiketen aitorpenerako eredu hauek onartu dira:

a) 510 eredua - Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak. Europar Batasuneko beste estatu batzuetatik jasotakoen aitorpena (foru agindu honen VII. eranskina).

b) 553 eredua - Ardoaren eta Edari Hartzituaren gaineko Zerga. Ardo eta edari hartzituen lantegi eta zerga gordailuetako eragiketen aitorpena (foru agindu honen VIII. eranskina).

No será necesaria la presentación de las autoliquidaciones cuando no haya habido existencias ni movimiento de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en el período de liquidación correspondiente.

Tampoco será necesario presentar, en el correspondiente periodo de liquidación, las autoliquidaciones con cuota cero del Impuesto sobre la Electricidad y del Impuesto sobre Hidrocarburos en relación con el gas natural.

No obstante, cuando a lo largo de un período de liquidación resulten aplicables tipos de gravamen diferentes por haber sido éstos modificados, los sujetos pasivos estarán obligados a presentar una autoliquidación, con ingreso de las cuotas correspondientes, por cada período de tiempo en que hayan sido aplicados cada uno de los tipos de gravamen.

En el caso de sujetos pasivos de los Impuestos Especiales de Fabricación que lo sean exclusivamente por la recepción o entrega de productos procedentes del ámbito territorial comunitario no interno, no será necesaria la presentación de las autoliquidaciones en aquellos períodos de liquidación, en que no se hayan producido recepciones o entregas.

3. Los períodos de liquidación y los plazos para la presentación de las autoliquidaciones y, en su caso, ingreso simultáneo de las cuotas resultantes serán los siguientes:

a) Impuestos sobre Hidrocarburos y sobre Labores del Tabaco:

- Período de liquidación: Un mes natural.

- Plazo de presentación: Los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el mes en que se han producido los devengos.

b) Impuestos sobre el Alcohol y las Bebidas Alcohólicas:

- Período de liquidación: Un trimestre natural, salvo que se trate de sujetos pasivos cuyo período de liquidación en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido fuera, atendiendo a su volumen de operaciones u otras circunstancias previstas en la normativa de dicho impuesto, mensual, en cuyo caso será también mensual el período de liquidación de estos impuestos.

- Plazo de presentación: Si el período de liquidación es trimestral, los veinticinco primeros días naturales del segundo mes siguiente a aquel en que finaliza el trimestre en que se han producido los devengos. Si el período de liquidación es mensual, los veinticinco primeros días naturales del tercer mes siguiente a aquél en que finaliza el mes en que se han producido los devengos.

c) Impuesto sobre la Electricidad:

- Período de liquidación: Con carácter general el período de liquidación es un trimestre natural, salvo que se trate de sujetos pasivos cuyo período de liquidación en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido fuera, atendiendo a su volumen de operaciones u otras circunstancias previstas en la normativa de dicho impuesto, mensual, en cuyo caso será también mensual el período de liquidación de este impuesto.

- Plazo de presentación: Los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el mes o el trimestre, según el período de liquidación, en que se han producido los devengos.

4. La presentación de las autoliquidaciones y el pago simultáneo de las cuotas se efectuara en las Entidades Bancarias de crédito o ahorro autorizadas para actuar como Entidades Colaboradoras por la Diputación Foral de Álava. Las autoliquidaciones sin cuota a ingresar deberán presentarse en el Servicio de Tributos Indirectos-Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Segundo. Presentación de declaraciones de operaciones.

1. Se aprueban los siguientes modelos de declaraciones de operaciones:

a) Modelo 510 -Impuestos Especiales de Fabricación. Declaración de operaciones de recepción de productos del resto de la Unión Europea-, que se adjunta como Anexo VII a la presente Orden Foral.

b) Modelo 553 -Impuesto sobre el Vino y Bebidas Fermentadas. Declaración de operaciones en fábricas y depósitos fiscales de vino y bebidas fermentadas-, que se adjunta como Anexo VIII a la presente Orden Foral.

c) 570 eredua - Hidrokarburoen gaineko Zerga. Hidrokarburoen lantegi eta zerga gordailuetako eragiketen aitorpena (foru agindu honen XV. eranskina).

d) 580 eredua - Tabakogaien gaineko Zerga. Tabakogaien lantegi eta zerga gordailuetako eragiketen aitorpena (foru agindu honen XVI. eranskina).

2. Autolikidazioez gainera subjektu pasiboek egindako eragiketen aitorpenak ere aurkeztu behar dituzte, are izakinak baino ez dauzkatenean ere, eta horretarako foru agindu honen bidez onartutako ereduak erabili behar dituzte.

Aitorpenok aurkezteko epealdia foru agindu honetako 1. artikuluko 3. idatz zatian autolikidazioetarako ezarritakoa bera izango da.

Hala ere, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergaren karga tasa zero den bitartean zerga gordailuen titularrek eta fabrikatzaileek 553 eredua aurkeztu beharko dute urtarrileko, apirileko, uztaileko eta urriko lehen hogeita bost egun baliodunetan aurreko hiruhileko naturalean eablezimenduan izan diren mugimenduak aitortzeko.

3. Erregistraturiko hartzaileek, erregistraturiko lantzean behingo hartzaileek, baimendutako jasotzaileek eta zerga ordezkariek soilik aurkeztu behar dute eragiketen aitorpenerako 510 eredua; ereduan Europar Batasuneko beste estatu batzuetako produktuak jasotzeko eta emateko mugimenduak baizik ez dira agertu behar.

4. Kuotarik sartu beharrik eragiten ez duten 510, 553 570 eta 580 ereduetako aitorpenak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean aurkeztu behar dira.

Hirugarrena. Zerga zigiluen eta marken eskaera.

1. Lurralde barnean etendura araubidetik kanpo zirkulatzen duten edari deribatuak eta zigarroak zirkulazio zigilua edo beste zerga markaren bat duten ontzietan egon behar dira, Zerga Berezien Araudian ezarri den bezala, baldin eta xedea botilatzeko edo ontziratzeko lantegia ez bada. Araudi hori uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartu du, eta hura irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua dela bide aplikatzen da Arabako Lurralde Historikoan.

2. Zerga Berezien Araudiko 26.5 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko 517 eredua onartu da: Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak. Zerga marken eskaera zerga bereziak kudeatzen dituen bulegoari (foru agindu honen IX. eranskina).

3. Eredu hau hauexek aurkeztu behar dute: zerga gordailuen titularrek eta Batasuneko lurralde eremutik, barnekoa ez beste lurralde batetik, edari deribatuak edo zigarroak jasotzen dituzten guztiek, bai etendura araubidean, bai bermatutako bidalketaren bidez zein urrutiko salmentetan.

4. Ez da ezarri 517 eredua aurkezteko epealdirik. Eredu hau inprimatuta aurkeztu behar da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean.

Laugarrena. Zirkulazio agiriak. Aurkezteko moduak.

1. Zerga Berezien Araudiko 1.7 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako (Araudia uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartu du, eta dekretu hori irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua dela bide aplikatzen da Arabako Lurralde Historikoan) 500 eredua onartu da: - Agiri osagarria, Zerga Berezien kargapeko produktuen barne zirkulaziorako behar dena etendura araubidean edo larga tasa murriztua edo salbuespena aplikatzen denean (foru agindu honen XI. eranskina).

2. Zerga Berezien Araudiko 29.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako 551 eredua onartu da: Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak. Astean egindako agiri osagarrien zerrenda (foru agindu honen X. eranskina).

c) Modelo 570 -Impuesto sobre Hidrocarburos. Declaración de operaciones en fábricas y depósitos fiscales de hidrocarburos-, que se adjunta como Anexo XV a la presente Orden Foral.

d) Modelo 580 -Impuesto sobre las Labores del Tabaco. Declaración de operaciones en fábricas y depósitos fiscales de labores del tabaco-, que se adjunta como Anexo XVI a la presente Orden Foral.

2. Como complemento a las autoliquidaciones, los sujetos pasivos están obligados a presentar las declaraciones que comprendan las operaciones realizadas, incluso cuando sólo tengan existencias, de acuerdo con los modelos aprobados en la presente Orden Foral.

El plazo para presentar dichas declaraciones será el señalado en el apartado 3 del artículo 1 de esta Orden Foral para las autoliquidaciones del correspondiente impuesto.

No obstante lo anterior, mientras el tipo impositivo del Impuesto sobre el Vino y Bebidas Fermentadas sea cero, los fabricantes y titulares de depósitos fiscales presentarán el modelo 553 dentro de los veinticinco primeros días hábiles de los meses de enero, abril, julio y octubre por el movimiento habido en el establecimiento durante el trimestre natural inmediatamente anterior.

3. La declaración de operaciones modelo 510 será presentada exclusivamente, por los destinatarios registrados, los destinatarios registrados ocasionales, los receptores autorizados y los representantes fiscales, no debiendo reflejar más movimientos que las recepciones y entregas de productos procedentes de otros Estados miembros de la Unión Europea.

4. Las declaraciones de operaciones modelos 510, 553 570 y 580 deberán presentarse en el Servicio de Tributos Indirectos-Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Tercero. Petición de precintas y marcas fiscales.

1. Las bebidas derivadas y los cigarrillos que circulen, fuera del régimen suspensivo, con un destino dentro del ámbito territorial interno que no sea una planta embotelladora o envasadora independiente, deberán contenerse en recipientes o envases provistos de una precinta de circulación u otra marca fiscal con las condiciones previstas en el Reglamento de los Impuestos Especiales aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de septiembre.

2. A efectos de lo dispuesto en el artículo 26.5 del Reglamento de los Impuestos Especiales, se aprueba el modelo 517 -Impuestos Especiales de Fabricación. Petición de Marcas Fiscales a la Oficina Gestora de impuestos especiales- que se adjunta como Anexo IX a la presente Orden Foral.

3. Presentarán este modelo los fabricantes, los titulares de depósitos fiscales, y todos los receptores de bebidas derivadas o cigarrillos procedentes del ámbito territorial comunitario no interno, ya sea en régimen suspensivo, por el procedimiento de envíos garantizados o ventas a distancia.

4. La presentación del modelo 517, no sujeto a plazos determinados, deberá efectuarse en soporte papel en el Servicio de Tributos Indirectos - Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Cuarto. Documentos de circulación. Formas de presentación.

1. A los efectos del artículo 1.7 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de septiembre, se aprueba el modelo 500 -Documento de acompañamiento- que ampara la circulación interna de productos objeto de Impuestos Especiales en régimen suspensivo o con aplicación de una exención o de un tipo reducido, que se adjunta como Anexo XI a la presente Orden Foral.

2. A efectos de lo establecido en el artículo 29.1 del Reglamento de los Impuestos Especiales, se aprueba el modelo 551, -Impuestos Especiales de Fabricación. Relación semanal de documentos de acompañamiento expedidos- que se adjunta como Anexo X a la presente Orden Foral.

Hauexek aurkeztu behar dute 551 eredua: agiri osagarriak egiten dituztenek xedetzat barneko lurralde eremua duten eragiketetan eta agiri osagarri erraztuak egiten dituztenek xedetzat Europar Batasuna duten eragiketetan. 551 eredua inprimatuta aurkeztu behar da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean. Eredu bakoitza bertan aipatzen diren datuak gertatu diren epealdiaren hurrengo astean zehar aurkeztu behar da.

Hala ere, agiri osagarriak prozedura informatikoen bidez ematen badira, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendaren ordez egindako agiri osagarrien datuak aurkeztu ahal izango dira. Halakoetan, datuak agiriak egin ondoko hilaren barruan aurkeztu beharko dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezartzen dituen baliabide eta prozedura elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez.

3. Zerga Berezien Araudiko 30 bis.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako 501 eredua onartu da: Presazko agiri osagarria (foru agindu honen XII. eranskina).

501 eredua Batasunaren barruko etendura araubideko zirkulaziorako erabiliko da produktuak bidaltzean kontrol informatizaturako sistema ez dabilenean. Horrelakoetan, produktuan zirkulazioan jarri baino lehen, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalari azaldu beharko zaio zergatik ez dabilen sistema eta zenbat iraungo duen matxurak, jakinez gero, Araudiko 30 bis.1 artikuluan ezarri den bezala.

Dena den, 501 ereduaren ordez merkataritzako agiriren bat aurkez daiteke, baldin eta ereduan azaldu beharreko informazio bera ematen badu, gutxienez. Esaterako, dokumentu administratibo elektronikoaren zirriborroaren formularioaren paperezko kopia aurkez daiteke.

Bosgarrena. Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko produktu batzuen zirkulazioaren berri ematea aldez aurretik.

1. Zirkulaziorako agiri osagarria egin behar denean, produktua bidaltzen duenak agiriaren kopia igorri behar dio Zerga Administrazioari ondoko kasu hauetan:

a) Alkohol etilikoaren barne zirkulazioa, etendura araubidean zein salbuespena aplikatuta.

b) Edari deribatuen barne zirkulazioa etendura araubidean, kopurua 12 hektolitro edo gehiago izanez gero.

c) Zigarroen barne zirkulazioa etendura araubidean, kopurua 500.000 edo gehiago izanez gero.

d) Hidrokarburoen barne zirkulazioa etendura araubidean.

2. Zergen Administrazioari zirkulazioa hasi baino lehen helarazi behar zaizkio agiri osagarriko datuak baliabide telematikoen bitartez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ezartzen dituen baliabide eta prozedura elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz.

3. Zerga Berezien Araudiko 29.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako (Araudia uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartu du, eta dekretu hori irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua dela bide aplikatzen da Arabako Lurralde Historikoan), Zerga Administrazioari zirkulazioa hasi baino lehen ematen bazaio agiri osagarriko datuen berri, gero ez zaio aitorpena egin beharko.

Seigarrena. Ardo alkohola eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko beste produktu batzuk fabrikatzeko hiruhilekoan emandako lehengaien zerrenda.

1. Zerga Berezien Araudiko 89. artikuluko 4. eta 5. idatz zatietan xedatutakoaren ondorioetarako (Araudia uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartu du, eta dekretu hori irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua dela bide aplikatzen da Arabako Lurralde Historikoan), 521 eredua onartu da: Hiruhilekoan emandako lehengaien zerrenda (foru agindu honen XIII. eranskina).

Deberán presentar el modelo 551, los expedidores de documentos de acompañamiento en operaciones con destino al ámbito territorial interno, así como los expedidores de documentos simplificados de acompañamiento en operaciones con destino al ámbito territorial intracomunitario. La presentación se realizará en soporte papel en el Servicio de Tributos Indirectos- Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos. El plazo de presentación será dentro de la semana siguiente al período al que se refieren los datos del modelo.

No obstante, cuando los documentos de acompañamiento se emitan por procedimientos informáticos, la relación a que se refiere el párrafo anterior podrá ser sustituida por la presentación, de los datos correspondientes a los documentos de acompañamiento expedidos, a través de los medios y procedimientos electrónicos, informáticos o telemáticos que se habiliten por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, dentro del mes siguiente a su expedición.

3. A los efectos del artículo 30 bis.5 del Reglamento de los Impuestos Especiales, se aprueba el modelo 501 -Documento de acompañamiento de emergencia- que se adjunta como Anexo XII a la presente Orden Foral.

El modelo 501 se utilizará para amparar la circulación intracomunitaria en régimen suspensivo cuando el sistema de control informatizado no esté disponible en el momento de la expedición de los productos, debiendo informar al Servicio de Tributos Indirectos-Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previamente a la circulación, de los motivos y de la duración, si se conoce, de la indisponibilidad, tal como establece el artículo 30 bis.1 del citado Reglamento.

No obstante, el modelo 501 podrá sustituirse por algún documento comercial que contenga al menos idéntica información, pudiendo ser también una copia en soporte papel del formulario de borrador del documento administrativo electrónico.

Quinto. Comunicación previa en la circulación de determinados productos objeto de los Impuestos Especiales de Fabricación.

1. Cuando proceda la expedición de un documento de acompañamiento las personas que expidan los productos deberán enviar una copia del mismo a la Administración tributaria en los supuestos que a continuación se detallan:

a) Circulación interna de alcohol etílico, tanto en régimen suspensivo como con aplicación de una exención.

b) Circulación interna, en régimen suspensivo, de bebidas derivadas en cantidad igual o superior a 12 hectolitros.

c) Circulación interna, en régimen suspensivo, de cigarrillos en cantidad igual o superior a 500.000 unidades.

d) Circulación interna, en régimen suspensivo, de hidrocarburos.

2. La transmisión a la Administración tributaria de los datos correspondientes al documento de acompañamiento se realizará, antes del inicio de la circulación, por vía telemática, por los medios y procedimientos electrónicos, informáticos o telemáticos que se habiliten por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

3. A efectos de lo dispuesto en el artículo 29.1 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de septiembre, los documentos de acompañamiento declarados a la Administración tributaria dentro del sistema de comunicación previa no deberán ser declarados posteriormente.

Sexto. Relación trimestral de materias primas entregadas para la fabricación de alcohol vínico y otros productos objeto de los Impuestos Especiales de Fabricación.

1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 89.4 y 5 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado mediante Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de septiembre, se aprueba el modelo 521 -Relación trimestral de primeras materias entregadas-, que se adjunta como Anexo XIII a la presente Orden Foral.

2. Ardo alkohola fabrikatzeko lehengaiak biltzen dituztenek aurkeztu behar dute 521 eredua. Uxualak, pikotxak eta ardogintzako gainerako hondarrak eredu horretan aitortu behar dira, xedea gorabehera.

Halaber, nahitaez aurkeztu behar dute 521 eredua azukre kristalizatua fabrikatzen dutenek (mota eta jatorri guztietakoak), isoglukosa fabrikatzen dutenek eta melaza biltzen dutenek fabrikatik edo biltegitik melaza edo isoglukosa irteten denean, produktuaren xedea gorabehera.

Eredu hau hiruhilekoan produktuak ematen edo bidaltzen direnean soilik aurkeztu behar da.

3. Hiruhileko bateko emateen zerrenda hurrengo hiruhileko naturaleko lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

4. 521 eredua Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean aurkeztu behar da.

Zazpigarrena. Zerga Berezien Araudia onartu duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuko 108 ter artikuluan aipatzen diren produktuen hiruhilekoko gaztigua (dekretu hori irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua dela bide aplikatzen da Arabako Lurralde Historikoan).

1. Zerga Berezien Araudiko 108 ter artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, 522 eredua onartu da: Zerga Berezien Araudiko 108 ter artikuluan aipatzen diren produktuen hiruhilekoko gaztigua (foru agindu honen XIV. eranskina).

2. Nahitaez aurkeztu beharko dute 522 eredua Zerga Berezien Araudiko 108 ter artikuluan aipatzen diren produktuak fabrikei edo zerga gordailuei lehenbizi hornitzen dizkietenek (lehen hornitzaileak).

Hauexek dira lehen hornitzaileak: produktuak lehen aldiz fabrika edo zerga gordailu batean sartzeko eragiketa agintzen duen pertsona, erakundea edo Zerga Berezien establezimenduaren titula. Eragiketa hori zuzenean egiten bada produktuak jasotzen dituen fabrikaren edo zerga gordailuaren titularraren kontura, berak aurkeztu behar du eredua.

Lehen hornitzailearen izaeran ez dauka inolako eraginik produktua Batasunaren barruko eskuraketa baten bidez edo inportazio baten bidez heltzeak. Hala ere, Europar Batasunaren barruko eskuraketa edo inportazioa zuzenean egiten bada produktua lehenbizikoz jasotzen duen fabrikaren edo zerga gordailuaren titularraren kontura, hark ez dauka produktuaren berri eman beharrik ereduan.

522 eredua hiruhilekoan mugimenduren bat izan denean soilik aurkeztu behar da.

3. Hiruhileko bateko gaztigua hurrengo hiruhileko naturaleko lehenengo hogeita bost egunetan aurkeztu behar da.

4. 522 eredua Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zeharkako Zergen Zerbitzuko BEZ eta Zerga Berezien Atalean aurkeztu behar da.

Zortzigarrena. Kodeak.

Foru agindu honetan araututako zerga berezien ereduetako atal batzuetan kodeak jarri behar badira, subjektu pasiboek ondoko hauek erabili behar dituzte:

a) Fabrikazioaren gaineko Zergen kargapeko produktuen epigrafeen eta neurri unitateen kodeak: foru agindu honen XVII. eranskineko taulako kodeak erabili behar dira produktuen epigrafeak adierazteko.

b) Aduanen kodeak: esportazioko aduanaren gakoa zehaztu behar bada, foru agindu honen XVIII. eranskineko taulako kodeak erabili behar dira.

c) Herrialdeen kodeak: produktuak heltzen diren Batasuneko estatuak adierazteko foru agindu honen XIX. eranskineko taulako kodeak erabili behar dira.

d) Produktuen kodeak: 684/2009 Araudiaren (EE) II. eranskineko 11 kodeen zerrenda, foru agindu honen XX. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2. El modelo 521 deberán presentarlo quienes almacenen productos que constituyan materia prima para la fabricación de alcohol vínico. Cuando se trate de orujos, piquetas y demás residuos de la vinificación se incluirán en dicho modelo, cualquiera que sea su destino.

Asimismo, estarán obligados a presentar el modelo 521 los fabricantes productores de azúcares cristalizados de cualquier clase o procedencia, los de isoglucosa y los almacenistas de melazas, respecto a las salidas de sus fabricas o almacenes, tanto de melaza como de isoglucosa, cualquiera que sea el destino de las mismas.

Este modelo deberá ser presentado, únicamente, cuando haya habido entregas o envíos de productos durante el trimestre.

3. La relación trimestral deberá ser presentada dentro de los veinticinco primeros días siguientes a la terminación de cada trimestre natural.

4. La presentación del modelo 521 deberá efectuarse en el Servicio de Tributos Indirectos - Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Séptimo. Parte Trimestral de productos a que se refiere el artículo 108 ter del Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de los Impuestos Especiales, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 11/1997, de 16 de septiembre.

1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 108 ter del Reglamento de los Impuestos Especiales, se aprueba el modelo 522 -Parte trimestral de productos a que se refiere el artículo 108 ter del Reglamento de los Impuestos Especiales-, que se adjunta al Anexo XIV de la presente Orden Foral.

2. Estarán obligados a presentar el modelo 522, los primeros proveedores de los productos a que se refiere el artículo 108 ter del Reglamento de Impuestos Especiales a fábrica o depósito fiscal.

Se entenderá por primer proveedor la persona, entidad o titular del establecimiento de impuestos especiales, por cuya cuenta se realice la operación por la que los productos son introducidos, por primera vez, en una fábrica o depósito fiscal. Si dicha operación se realiza directamente por cuenta del titular de la fábrica o depósito fiscal de destino será éste el obligado a presentar el modelo.

A estos efectos, la condición de primer proveedor será independiente de que el producto proceda de una adquisición intracomunitaria o importación. No obstante lo anterior, cuando la adquisición intracomunitaria o importación se haga directamente por cuenta del titular de la primera fábrica o primer depósito fiscal de destino de los productos, no se exigirá a éstos la presentación del modelo en relación con dichos productos.

El modelo 522 deberá presentarse únicamente cuando haya existido movimiento en el periodo trimestral.

3. La presentación se realizará dentro de los veinticinco primeros días naturales siguientes a la terminación de cada trimestre natural.

4. El modelo 522 deberá presentarse en el Servicio de Tributos Indirectos - Sección de IVA e Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Octavo. Códigos.

Cuando para la cumplimentación de los diferentes modelos de Impuestos Especiales desarrollados en la presente Orden Foral, el sujeto pasivo necesitase utilizar codificaciones en algunos de los apartados, éstas serán las que se definen a continuación:

a) Códigos de epígrafe de los productos objeto de los Impuestos Especiales de Fabricación y unidades en los que deben expresarse los mismos: deberá consignarse el código de epígrafe de acuerdo con la tabla de códigos que figura en el Anexo XVII de esta Orden Foral.

b) Códigos de Aduanas: cuando haya que consignarse la clave de la aduana de exportación, se indicará el código correspondiente según la tabla de códigos establecida en el Anexo XVIII de esta Orden Foral.

c) Códigos de Países: cuando haya que consignar la clave del Estado miembro de destino de los productos se hará conforme con la tabla de códigos que aparecen en el Anexo XIX de esta Orden Foral.

d) Códigos de productos: lista de códigos 11 del Anexo II del Reglamento (CE) 684/2009, según los códigos establecidos en el Anexo XX de esta Orden Foral.

e) Paketatze motaren kodeak: 2454/1993 (EEE) Araudiaren 39. eranskineko 31. laukia, foru agindu honen XXI. eranskinean ezarritako kodeen arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa. Foru agindu honek ezarritakoaren arabera kasu batzuetan eredua nahitaez aurkeztu behar da baliabide telematikoen bitartez. Bada, horrelakoetan baliabide telematikoak erabili ezin badira, eredua paperean aurkeztu behar da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Zerga Berezien Atalean.

Bigarrena. 553 eredua aurkezteko epealdiak, foru agindu honetako bigarren artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoak, 2013ko aitorpenei aplikatuko zaie lehenengoz, hain zuen ere urte horretako apiriletik aurrera aurkeztu beharreko aitorpenei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1. Foru agindu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira xedapen hauek:

- 1120/1997 Foru Agindua, irailaren 12koa, Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien aitorpenerako inprimaki eredu batzuk onartu dituena eta ereduok non eta zer epealditan aurkeztu behar diren ezarri duena.

- 272/1998 Foru Agindua, otsailaren 27koa; honen bidez Elektrizitatearen gaineko Zergaren aitorpen-likidaziorako 560 eredua onartu da, zerga kuota zehazteko eta sartzeko aurkeztu beharrekoa.

- 593/2000 Foru Agindua, abuztuaren 4koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena; honen bidez Europar Batasunaren barruko trafikoan bidalitako eta jasotako agiri osagarrien laburpen zerrenden eredu berriak eta euskarri magnetikoak onartu dira (baita agiri erraztuenak ere).

- 673/2001 Foru Agindua, urriaren 18koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena; honen bidez ondoko ereduak onartu dira (eurotan): 300, 310, 320, 330, 308, 309, 349 eta 034, Balio Erantsiaren gaineko Zerga; 110, 111, 115-A, 117, 123, 124, 126, 128, 187, 188, 193, 194, 196 eta 198, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (establezimendu iraunkorrak); 560, 561, 562, 563, 564, 565 eta 566, Zerga Bereziak; 600, 610, 620 eta 630 ereduak, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Berezien ordainketarako 560, 561, 562, 563, 564, 565 eta 566 ereduei dagokienean.

2. Foru agindu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira ondoko xedapen hauek azalduko den bezala:

- 1365/1997 Foru Agindua, urriaren 27koa; honen bidez Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien kargapeko eragiketen aitorpenerako 510, 553, 554, 557, 558, 570 eta 580 ereduak onartu dira, bai eta 501 eta 502 ereduak ere, hurrenez hurren bidalitako eta jasotako agiri osagarrien asteko aitorpena egiteko aurkeztu beharrekoak, eta ereduok aurkezteko epealdiak ezarri dira; 510, 553, 570 eta 580 ereduei dagokienez, 1. artikuluko lehen, bigarren eta laugarren zenbakietan eta 2., 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoa indargabetu da.

- 1612/1997 Foru Agindua, abenduaren 31koa; honen bidez Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien ordainketarako 504, 505, 509, 511, 517, 524 eta 572 ereduak onartu dira, bai eta lurralde erregistroan inskribatzeko txartela eta alkohola hornitzeko txartela ere; 517 ereduari dagokionez, 1. artikuluko bosgarren zenbakian eta 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoa indargabetu da.

3. Halaber, foru agindu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko eta beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko martxoaren 15ean.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

e) Códigos de tipo de embalaje: Anexo 39, casilla 31, del Reglamento (CEE) 2454/1993, según los códigos establecidos en el Anexo XXI de esta Orden Foral.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Primera. En aquellas presentaciones que la presente Orden Foral establezca como obligatoria la utilización de medios telemáticos y éstos no se encuentren habilitados se deberá utilizar el soporte papel, presentando el modelo correspondiente ante la Sección de Impuestos Especiales del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

Segunda. Los plazos de presentación del modelo 553 recogidos en el apartado 2 del articulo segundo de la presente Orden Foral se aplicarán por primera vez a las declaraciones de este modelo correspondientes al año 2013 que deban presentarse a partir del mes de abril de dicho año.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

1. A la entrada en vigor de esta Orden Foral, quedarán derogadas las siguientes disposiciones:

- Orden Foral 1120 de 12 de septiembre de 1997, por la que se aprueban diversos modelos de impresos relativos a los Impuestos Especiales de Fabricación y se establecen los plazos y lugares de presentación.

- Orden Foral 272 de 27 de febrero de 1998, por la que se aprueba el modelo 560 de declaración-liquidación para la determinación e ingreso del Impuesto sobre la Electricidad.

- Orden Foral 593 del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 4 de agosto de 2000, por la que se aprueban los nuevos modelos de relaciones recapitulativas y los soportes magnéticos de documentos de acompañamiento expedidos y de documentos de acompañamiento recibidos en tráfico intracomunitario, incluidos los simplificados.

- Orden Foral 673, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 18 de octubre de 2001, por la que se aprueban los siguientes modelos en euros: 300, 310, 320, 330, 308, 309, 349 y 034 del Impuesto sobre el Valor Añadido; 110, 111, 115-A, 117, 123, 124, 126, 128, 187, 188, 193, 194, 196 y 198 del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes); 560, 561, 562, 563, 564, 565 y 566 de Impuestos Especiales y por último los modelos 600, 610, 620 y 630 del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en lo que respecta a los modelos 560, 561, 562, 563, 564, 565 y 566 de Impuestos Especiales.

2. A la entrada en vigor de esta Orden Foral, quedarán derogadas las siguientes disposiciones en los términos que a continuación se indican:

- De la Orden Foral 1365 de 27 de octubre de 1997 por la que se aprueban los modelos de declaración de operaciones 510 -553 - 554 - 557 - 558 - 570 y 580, además de los modelos 501 y 502 de declaración semanal de documentos de acompañamiento expedidos y recibidos respectivamente, de los Impuestos Especiales de Fabricación y se establecen los plazos y lugares de presentación, en relación con los modelos 510, 553 570 y 580 se deroga lo establecido en el artículo 1 números Uno, Tres y Cuatro, y en los artículos 2, 3, 4, 5 y 6.

- De la Orden Foral 1612 de 31 de diciembre de 1997, por la que se aprueban los modelos 504, 505, 509, 511, 517, 524 y 572 de los Impuestos Especiales de fabricación así como la tarjeta de inscripción en el registro territorial y la tarjeta de suministro de alcohol, en relación con el modelo 517 se deroga lo establecido en el artículo 1 número Cinco y en los artículos 3 y 4.

3. Quedan asimismo derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden Foral.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA

Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2012.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

Elektrizitatearen gaineko Zerga
Autolikidazioa

Impuesto sobre la Electricidad
Autoliquidación

560

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

1 IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN

Identifikazio txartela jartzeko lekua
Espacio reservado para la etiqueta identificativa

2 SORTZAPENA DEVENGO

Ekitaldia ■ Ejercicio .....

Zergaldia ■ Período .....

Airtorpen osagarria ■ Declaración complementaria.....

Ordezko aitorpena ■ Declaración sustitutiva .....

IFZ ■ NIF	**Deiturak eta izena / Sozietatearen izena** ■ Apelllidos y nombre / Razón social					
Zerga helbidea (kalea edo plaza) ■ Domicilio fiscal (calle o plaza)	**Zk.** ■ N.°	**Letra** ■ Letra	**Eskra.** ■ Esc.	**Sol.** ■ Piso	**Ald.** ■ Mano	**Tel.** ■ Tfno.
Entitatea ■ Entidad	**Udalerria** ■ Municipio	**Probintzia** ■ Provincia				**Posta k.** ■ C. Postal

3 LIKIDAZIOA ■ LIQUIDACIÓN

Zerga oinarria Base imponible (5.1)	**Zerga tasa** Tipo impositivo (5.2)	**Kuota** Cuota (A)
Zerga oinarria Base imponible (MWh)(5.3)	**Zerga tasa. Industria erabilera** Tipo impositivo. Uso industrial (5.4)	**Kuota** Cuota (B.1)
Zerga oinarria Base imponible (MWh)(5.5)	**Zerga tasa. Erabilera orokorra** Tipo impositivo. Uso general (5.6)	**Kuota** Cuota (B.2)

Kuota (B), guztira ■ Total cuota (B)	
Kuota likidoa, guztira ■ Cuota líquida total	
Luzapen errekargua ■ Recargo de prórroga	
Berandutze korrituak ■ Intereses de demora.....	
.....	
Zerga zorra, guztira ■ Total deuda tributaria	

4 DATA ETA SINADURA FECHA Y FIRMA

Data ■ Fecha: .....

Subjektu pasiboaren sinadura
Firma del sujeto pasivo

5 SARRERA FROGARIRIA JUSTIFICANTE DE INGRESO

ORDAIN GUTUNA ■ CARTA DE PAGO

Zigilua eta sinadura ■ Sello y firma	**Entitatearen gakoa** ■ Clave Entidad	**Data** ■ Fecha	**Zenbatekoa** ■ Importe

RE. 11/140

PSN ■ PVP: 0,12€

1. orria: Administrazioarentzako alea, 2. orria: doakionarentzako alea , 3. orria: entitate laguntzailearentzako alea
1ª hoja: ejemplar para la Administración, 2ª hoja: ejemplar para el interesado, 3º hoja ejemplar para la Entidad Colaboradora

560 EREDUAREN JARRAIBIDEAK

1 Identifikazioa

Subjektu pasiboaren identifikazioa idatzi behar da. Horretarako, identifikazio txartela itsatsi behar da, dokumentuaren ale bakoitzean horretarako dagoen lekuan. JEK atalean, Jarduera eta Establezimendu Kodea (JEK) adierazi behar da.

2 Sortzapena

Ekitaldia: aitorpenean adierazitako zergaldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Zergaldia

1H = 1.hiruhilekoa	2H = 2. hiruhilekoa	3H = 3.hiruhilekoa	4H = 4. hiruhilekoa

Adibidea: 2010eko 4. hiruhilekoa
Ekitaldia: 2010
Zergaldia: 4H

01 = urtarrila	02 = otsaila	03 = martxoa	04 = apirila
05 = maiatza	06 = ekaina	07 = uztaila	08 = abuztua
09 = iraila	10 = urria	11 = azaroa	12 = abendua

Adibidea: 2010eko urria
Ekitaldia: 2010
Zergaldia: 10

3 Likidazioa

5.1 Zerga oinarria: Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 66. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztu behar da; eurotan eta bi zifra hamartarrekin eman behar da, gutxiagoz edo gehiagoz biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

5.2 Zerga tasa: Zerga Berezien Arauaren 67.1 artikuluan ezarritakoa izango da.

Kuota (A): zerga oinarria (5.1 laukia) eta zerga tasa (5.2 laukia) biderkatzearen emaitza izango da.

